

## **FUNTZESKO JARDUERAK**

Gure proiektua ondo funtzionatzeko negozioan identifikatzeko eta negoziatzeko plan bat sortu behar dugu beharrezkoak izango diren gauzeekin, aurrekontuekin eta gauza pertsonalekin. Gure enpresak izango dituen gastuak ezagutu behar ditugu eta bakoitzaren aukeren berri izan behar dugu.

Ohiturak, garaiak eta modak etengabe aldatzen dira eta beraz, gure gaitegiak noizbehinka aldatu behar ditugula kontuan hartuko dugu. Inbertsioa egin aurretik gure negozioa ondo ezagutu behar dugu kontsumitzaileen edo bezeroen beharren edo gustuen abangoardian dagoen enpresa sortzeko. Adibidez, azken urte hauetan jende asko kexatzen ari da ikastetxeen gaitegia dela eta, haien hitzetan bizitzan benetan beharrezkoak diren kontzeptuak ez direlako behar bezala ematen.

Gainera, proiektua aurrera eramateko webgunea sortzea eta eguneratuta mantentzea ideia on bat da bezeroak aldian-aldian eskaintzen edo egiten dugun guztiaren informazioa jasotzeko. Han guztia ikusgai izango dute klase bakoitzeko informazio guztia. Beste aldetik, ordutegi batekin azalduko dugu gure kurtsoaren planifikazioa eta noski, gurekin kontaktuan jartzeko hainbat aukera izango dituzte, adibidez posta elektronikoa edo gure telefonoa.

Gure proiektua eguneratua izateko, marketinga kudeatu behar izango dugu eta hainbat marketing kanpainak eta iragarkiak prestatuko ditugu. Honekin, gure proiektua zabaltzea lortuko dugu. Marketing estrategia guztiak udalaren laguntzarekin kudeatuko ditugu.

Gure tailerra zazpi aste iraungo du eta aste bakoitzean gai zehatz batean zentratuko gara. Saio bakoitza bi ordukoak izango dira eta larunbatean, igandean eta asteazkenean ez da klaserik egongo.